

BALENDIN ENBEITA GOIRIA

Donostian, Euskaltzaindiaren bileran 1986.XI.28

Jose Antonio Arana Martija

Aurtengo Azaroaren 20an hil zaigu Balendin Enbeita bertsolaria. Eta euskaldunok badakigu zer esan nahi duen "zaigun" horrek Euskaltzaindiaren bilera honetan nekrologia hau ematen dugunean, Ohorezko Euskaltzaina zen gure Balendin eta. Muxikako Areatza auzuneko elizan eman zion herriak geroarterako agurra; hainbat erakunderen ordezkariak han bazeuden ere, eta bertsolariak ugari tartean, herria izan zen agurraren protagonista "Agur Jaunak" kantatuz eta txalo beroak emanez hilobirako bidea zabaldu zuena.

Balendin duela larogei urte jaioa zen Areatzako Usparitxa baserrian, 1906.eko Maiatzaren 20an, Balendin Berrio-Otxoa, Elorrioko Martiria eta bertsolarien patroia beatifikatu zuten egun berean. Horregatik aitak, Kepa Enbeita Rementeria "Urretxindorrak" (1878-1942) Elorrioko bertsolariaren izena jarri zion. Eta benetako bertsolari izango zenaren biziaren atea zabaldu zion. Benita Goiria zen haurraren ama, Ibarrurikoa, beste sei seme alaba bertsolaritzaren mundurako izango zituen: Bizenta, Sabin, Miren, Imanol, Edurne eta Itziar. Balendinek, bere aldetik, beste sei seme-alaba eman dizkigu bertsolarien giroan bizi direnak: Kepa, Abel, Libe, Moises, Joseba Andoni eta Jon. Nagusia, gainera, Euskaltzain urgazlea dugu. Hemen ditugu bada lau bertsolarien belaunaldiak, "Urretxindorren" aita zen Juan Antonio Enbeita "Txotxo Jeuri" gandik hasita.

Zurgin edo ebanista ikasketak egin zituen Balendinek eta 20 urte zituelarik ogibide hau zeukala joan zen Logroñora, gaztelera hizkuntza berandu bertan ikasi zuelarik. Gero Imanol anaiarekin garraio lanetan hasi zen 1934an, aitak erositako kamioi batekin. Txirriindularia ere izan zen gaztaroan, Sardui eta Barruetabeñaren garaian.

Eta Areatzako Ormaetxe baserrian bizi zen Klara Ealorekin, 1935.eko Azaroaren 30ean ezkondu zen. Gerra denboran, Bizkargiko frentean egon ondoren espetxeratua izan zen Laredon, Dueson eta Puerto de Santa Marian. 1937.eko Abenduaren leian, hamabi urteko zigorra eman zioten Gerra Epaiketa batetan, baina 1941an etxeratzea lortu zuen. Zigor horren ziorik astunena, agirian agertzen denez, "por componer versos alusivos al separatismo vasco" izan zen. Gero, Ormaetxe baserrian bizi izan zen gure Balendin nekazaritza ogibide zuelarik. 1948tik gauregunarte, berak eraikitako baserri etxe berri batetan bizi izan da Balendin Ormaetxe auzunean.

Bost urterekin bota zuen Balendinek bere lehen bertsoa. Baina 18 urte bete arte ez zen bertsolari gisa plazaratu, Eibarren 1924an. 1929an, 23 urte zituelarik, irabazi zuen bere lehen txapela Mungian. Eta geroko bertsoak badakigu zer leporatu zioten gerraldiko une tristean. Ez dira bertso asko izango hamabi urteko gartzela balio izan dutenak. Gerra ostean, jakina, isiltasuna baina ez euskal arima eta abertzaletasunaren itotasuna.

1955ean, Bergaran Uztapide eta Basarriren saio bat entzun ondoren hasi zen berriz Balendin bertsoan. Hurrengo urtean, Arantzazun, azaldu zen Euskaltzaindiaren bilera batetan eta urte berean, Bilbon, Azkueri egin zitzaion omenaldian. 1958an, Nazario Oleaga eta Alfonso Irigoien jaunen eraginez antolatu zen Bilboko Arenalean Bizkaiko lehen txapelketa eta Balendinek irabazi zuen txapela, Ormaetxe meñakarra bigarren lotuz. Orduan sortu zuen "Garriko" izeneko bertsolari eskola, Euskal Herrian, behar bada, lehen izan dena. 1959ko txapelketan ere Balendin Enbeita izan zen txapeldun, Azpillaga bigarren tokian utziz. Gero, hurrengo urteetan, Mugartegi, Azpillaga eta Lopategi izango ziren txapeldunak Bizkai mailan.



Azken hogeitahamar urteotan ez da bertso saio eta herriko jai askorik antolatu, Bizkai aldean behintzat, Balendinen partaidetzarik gabe. Honen bertso erraza, doinuz ondo hornitua, sarritan entzuteko aukera izan dugu honen inguruan bizi izan garenok. Euskara, herria, Euskal Herria izan dira gure txoriaren gaiak, libre bizi izan den txoriaren gaiak, noski. Eta herriak eskertu dio lana, orain azken agurra ematerakoan eta bere ohorez antolatuak izan diren omenaldietan: 1975.eko Otsailaren 3an Donostiako Astoria antzokian eskaini zioten